

Koldo Eleizalde Breñosa mende honen hasieran hizkuntza, politika, literatura, hezkuntza zein euskalduntze arloei dagozkienetan Euskal Herriaren nortasuna berreskuratzen lan handia egin zuen jakinduria handiko gizona izan zen. Matematika, astronomia eta zientzietan garai hartan indarrean zeuden teoriak ongi ezagutzen zituen. Filosofo klasikoek (Aristotele, Platon) eta modernoek (Kant, Marx, Hegel eta abarrek) idatzitako liburuak ezagunak zitzaizkion. Izaera zuzenekoa eta ez oso umore onekoa. Oso elizkoia eta euskaltzalea; baina —garaiko hainbat arrazoiengatik— euskaltzale izan arren gazteleraz liburu gehiago idatzi zituen euskaraz baino.

## Bizitza

Bergaran (Gipuzkoa) jaio zen 1878.eko ekainaren 9an. Bertan egin zituen lehenengo eta bigarren mailako ikasketak (1887-1891), Zaragozako Institutuan amaituz (1891-94).

Euskal Herrian unibertsitate-fakultaterik ez egoteak kanpora joan beharra ekarri zion, garai hartako hainbat gazteri bezalaxe. Honela,

lehenengo, Zaragozako Zientzi Fakultatean egon zen (1895-98) eta gero Madrilgoan, Astronomia, Fisika Matematikoa eta abarri buruzko ikasketak eginez eta 1899an Zientzietako Lizentziatura eskuratu. Injenieri Industrialen Madrilgo Eskolan ere egin zituen ikasketak 1902tik 1905era bitartean.

KOLDOBIKA ELEIZALDE (1878-1923)



Julio Urkixok idatzi zuenaren arabera (RIEV, 1923), karlista amorratua izan zen gaztaroan. Geroago, Sabino Aranaren irizkide bilakatu zen eta, horren eraginez, euskarari buruzko arazo praktikoei lotu zitzairen bereziki eta ez alde teorikoei. Adibidez, 1913. urtean *Morfología de la conjugación vasca sintética* idazpurudun liburua argitaratu zuenean, bere helburua ez zen hizkuntzalaritzari buruzko ikerketa egitea izan, euskaraz idatz zedin eta, ondorioz, euskara indarrean jarri, bultzatzea baizik.

Eleizalde berak aditzera ematen duenaren arabera, abertzalea izan zen gazte-gaztetandik, izan ere, gerrilari karlistei entzundako kontakizunek eta Walter Scott idazlearen liburuetakoa narrazioek inpresio sakona sortu baitzuten bere haurtzaroko bihotz

bigunean. 1906. urtean, ekintza nazionalistengatik gartzelan egon ondoren, Gasteizko Institutuan Matematika irakasle sartu zen, katedrarekin.

Euzko Alderdi Jeltzaleko kide izan zen, eta beronen izenean hainbat aldiz hautagai; 1910etik 1920ra bitartean erakutsi zuen ekimenik biziena eta emankorra. Huraxe izan zen argitalpen ugarien kaleratu zuen garaia ere, bai aldizkari-egunkarietan, bai hizkuntzalaritzari buruzko ikerketetan eta literatur lanei dagozkienetan. Hona hemen aipamen batzuk: *Raza, Lengua y Nación Vascas*, 1911. urtean; *Morfología de la conjugación vasca sintética*, 1913an; *Países y Razas*, 1914ean; *Landibar*, 1918an; *Metodología para la restauración del euzkera*, 1918an; *El*



BERGARA. BILBO  
Bergara izan zen Eleizalderen jaioterria, eta bertan egin zituen Unibertsitate-aurreko ikasketak (1887-1891). Gasteizen denboraldi bat egin ondoren, Bilbo izan zen, ostera, Eleizalde idazle eta politikariaren bizi-lekua.

*problema de la enseñanza en el País Vasco; gainera Hermes aldizkarian, Euzkadi egunkarian, La Baskonia, RIEV, Bizkaitarra eta abarretan ere idatzi zituen bere lanak.*

1918. urtean Oñatin ospatu zen Eusko Ikaskuntzaren lehenengo kongresuan nabarmenki hartu zuen parte. Eusko Ikaskuntza elkartearen sortzen lan handia egin zuen eta baita Euskaltzaindia eratzen ere; euskaltzain fundatzaile izan zen Arturo Kanpion, Julio Urkixo eta R. M. Azkuerekin batera. Euskararen bateratze-lanei ekin zien berehala eta Akademiaren egoitza Bilbon kokatzea berak proposatu zuen.

Nahikoa osasun eskasa zuen. Angel Apraizi eman zion horren berri 1920.eko ekainaren 12an egin zion idazki baten bidez. Bilbon hil zen 1923.eko uztailaren 24ean, Justo Garatek esaten duenaren arabera barrabiletako adeno-karzinoma baten eraginez.

## Euskararen aldeko elkarteetan

Euskararen aldeko lanetan, elkarte politiko eta kulturalen babesa bilatu zuen zuen Elizalde. Bi kasuak aipatuko ditugu hemen, arestian esandakoak osatuz.

3





## Elkarte politikoetan

Eleizaldek argitaratu zuen lehenengo idazkia «Uda Berriyaren Agertzean» idazpurua zuen olerkia izan zen (1894) eta *Euskal-Errian* kaleratu zen.

Garrantzi handirik gabeko erlijio kutsuko idazlan batzuekin batera, *Landibar* izeneko eleberria —gazteleraz argitaratu zuen lehenengoa eta bakarra— argitaratzeak (1918) eman zion idazleari literatura mailan ospea.

Eleizaldek liburu hau «Comunión Nacionalista Vasca» delakoari erabat atxekita zegoen garaian idatzi zuenez, gizaki moeta euskaldunak eta espainolak kontrajartzerakoan demagogiarik ere erabili zuen. Nolanahi ere, abertzaletasunaren aldeko egituretan erabat sartuta dagoen intelektual batek bere mugimendu politikoari eskaini behar izaten dizkion zerbitzuen artekotzat hartu behar dira iritzi horiek. Halatsu jokatu zuen Arturo Kanpionek ere hogei urte lehenago *Blancos y Negros* eleberrian (1898) antzerako gaia

### ELEIZALDEren JAIOETXEA

Hemen, geroago apaiz-etxea izango zen honetan, jaio zen K. Eleizalde. Horren oroigarritzat idazkun eder bat era jarri diote bergararrek. Aita, errezildarra zuen, eta ama, Aretxabaletakoa. Amaren aldeko aitona-amonak kanpotik etorriak ziren: aitona Cordoba-tik, eta amona, Frantziako Meaux hiriaren ingurutako Presles-en-Brie-tik, beharbada (karlista erbestereuren baten alaba ote?).

erabiliz eta era bereko tratamendua emanez.

Eleizalde gazterik hiltzeak gaztelerazko idazle garrantzitsua kendu zion nazionalismoari. Hala ere, nazionalismoaren zerbitzura lan egin zuen intelektual honek mugimendu horri eskaini ziona garrantzizkoa izan zen, bai kazetari gisa eta bai liburugile gisa ere.

## Euskaltzaindian

1918. urtean Oñatin ospatu zen Eusko Ikaskuntzaren Batzarrak sortzeko puntuan zegoen «Euskaltzaindia» eratzeko bide egokia eskaini zuen, denek argi ikusten baitzuten erakunde horren beharra. Eztabaidarik gogorrena hizkuntzari buruzko sailean suertatu zen, hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntza Elkartearen barruan Eleizalde lehendakari zuen sailean.


Eleizaldek bere gain hartu zuen Oñatiko Batzarreko hizkuntza sailak Euskaltzaindia sortzeko asmoz landu zuen proiektua aurkezteko aldundieiei bidali behar zitzaien gutuna idaztea. Idazki horretan euskara «zaindu, indartu, garbitu eta hedatu» egin behar zela esaten zen, euskararen kinka larria Euskal Herriak orduan zuen arazorik larrienetarikotzat joz.

Falto casi completamente de literatura, no entregado aún plenamente a la instrucción popular, relegado todavía casi de un modo exclusivo al iliterato uso popular por una parte, a las especulativas investigaciones de gabinete por otro lado, el idioma vasco necesita salvar la enorme distancia que separa la pura especulación del uso meramente vulgar, colmar el abismo que se abre entre estos dos tan distintos órdenes del conocimiento, dejar de ser puramente un curioso fenómeno lingüístico y restaurarse en la debida categoría del primero y más importante nexo social de la gens vasca cuya tradicional y propia habla es.

1918. urtearen azkenalderako Akademia berriaren Arautegia prest baldin bazegoen ere, batzorde sortzailea ez zen 1919ko irailaren 21a arte osatu. Azkue, Kanpion, Eleizalde eta Urkixo bildu eta gainerako euskaltzain osoak aukeratu zituzten.



AZKEN KARLISTADA  
(1872-1876)  
Azken karlistadaren oihartzunak hurbilak ziren, artean, Eleizalderen haurtzaroan. Gaztetan bera ere karlista izan zen, Aranaren abertzaletasunarekin topo egin aitzinetik. Argazkian, karlista bat, heriotzera eraman aurreko uneetan.



**POETA GAZTEA**  
 Gero idazle gertatu izan den asko bezala, Eleizaldek ere lehenengo idazlanak letra ederrei eskaini zizkien. Hauxe da argitara eman zuen estreinako lana; Donostiako Euskal-Eria aldizkarian kaleratu zen, idazlegaiak hamasei urte zituela.

## Hizkuntzaren sustapena

Eleizalderen euskal nortasuna oso-osoan definitzen duten elementuak, batetik, euskararekiko zaletasuna eta, bestetik, euskara berpizteko ahaleginetan egin zuen lan ikaragarria dira.

## Idea zaharkituetatik berriagoen bila

Euskarak irauteko ezinbestekotzat jotzen zuen Eleizaldek eskola, horren aurkako jarrera politikoez jartzen zituzten oztopoak asko baziren ere. Euskara galtzea, Eleizalderen ustez, arraza kontserbatzeko tresna galtzea zen. Idea nazionalista ortodoxoenei jarraituz, Eleizaldek arraza eta hizkuntza bata besteari erabat loturik ikusten zituen.

Moraltasunari dagokionez, Eleizalderen ustez hizkuntza galtzeak ohitura onak alde batera uztea eta herria gizarte industrialak dakarren utilitarismo eta materialismoan murgiltzea ekarriko zuen. Gaztelerak haserre alditan botatzeko biraoak dituela ere aipatzen du; euskara, oster, guztiz garbia da. Gainera, erdaldundu diren eskualdeetan krimen gehiago gertatzen direla esaten du, izan ere, materialtasunak gidatzen baitu lurralde horietan moraltasuna.

Gaztetandiko gaisotasuna zela eta, ezin izan zien eman Eleizaldek denbora gehiegi lan akademikoei. Hala ere, euskararen ortografiari buruzko eztabaidetan parte hartu zuen eta, Euskaltzaindiak gaiari buruzko akordioak onartu ondoren, bere gain hartu zuen Eusko Ikaskuntzari ere bere idazkietan arau horiek betetzeko proposamena egitea. Euskaltzaindiko idazkari eta aldi berean Eusko Ikaskuntzako hizkuntza saileko lehendakari zelarik bi erakundeen arteko harremanei eutsi zien Eleizaldek, gero poliki-poliki bata bestearengandik aldentuz joan baziren ere.





#### OÑATIKO UNIBERTSITATEA

Bere egitekoa oso nolabait eta mugatuki beterik ere, Unibertsitate hau bakarrik izan zuen Euskal Herriak bere gazteen goi-prestakuntza laguntzeko (1540). Beste askok bezala, Eleizaldek ere erbesteko Goi-ikastetxeetan ikasi behar izan zuten: Zaragozan eta Madrilan, Deustuko Unibertsitate gaztean ere ez baitzuen bere ikaskizunetarako biderik.

«Hizkuntza baten nortasun-maila eta hizkuntza hori erabiltzen duen biztanlegoaren naziotasunaren tamaina mintzaira horrek mugakide dituen hizkuntzekiko ezberdintasunak kontutan hartuz neurtu behar baldin badira, inolako lotsarik gabe esan genezake ez dagoela Europa guztian Euskal Herriak baino naziotasun nabariagorik duen naziorik» (1916).

Eleizaldek argi eta garbi zekien aberatsak izan zirela euskara lehenengoz alde batera utzi zutenak, euskara erabiltzea jende pobrearekin lotzen zutela eta elitekoak izateko euskara baztertu egiten zutela. Jarrera horren ondorioz kulturarik ez zuen jendeak hitz egin ohi zuen euskaraz eta hurrekin eta neskameekin mintzatzeko erabiltzen zen.



Euskara alde batera utzi dutenak aberatsak izan baldin badira, mintzaira honen berreskuratze lanetan apaizgoak eta aipatu den giza talde horretako kideek hartu behar dute parte bereziki, hau da, lanbide liberalak dituztenek. Bene-benetan uste zuen goreneko mailako klaseek euskara erabiltzen baldin bazuten euskararen berreskuratzea bermatuta egongo zela, horren ondorioz behe mailakoek ere kategoriakotzat joko baitzuten euskaraz mintzatzea.

### Indarberritzearen eginkizunak

«Metodología para la restauración del euskera» zeritzan hitzaldia eman zuen Eleizaldek 1918. urtean Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzaren I. Batzarrean. Batasunaren aldeko postura egiten du mintzaldi honetan hizlariak.

### *Euskararen batasuna*

«Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino» delakoan Sabino Aranak azaltzen zituen irizpideen aurka, euskarazko literatura euskara batua erabiliz baizik ez dela lortuko esan zuen Eleizaldek.

Euskalkiek gure historian zehar indarra izan baldin badute, honako hauek izan dira horren zergatiak:

batetik, ez dugula idatzizko literaturarik izan eta, bestetik, Euskal Herria politikoki zatituta egon dela bere historia osoan zehar. Ezinbestekoa da euskalki, fonetika eta ortografia mailako bateratze lana egitea eta, horretarako, beharrezkoa da kroaten antzera Akademia sortzea eta irlandar eta eskoziarrek bere hizkuntza hedatzeko hartu duten bideari ekitea.

Eleizalderen ustetan, fonetika mailako batasuna lortzeak lexikoaren batasunera heltzeko bidea erraztuko luke. Horretarako, fonetika bakarra aplikatu behar litzaieke euskalki guztiei eta transkripzio dialektalak gutxitu.

#### OÑATIKO BATZARRA (1918)

Eusko Ikaskuntzaren lehenengo Batzarrak, euskal kulturaren mugarririk garbia jarri zuen: han azaldutako hainbat egitasmo aurrera bultzatzen ahaleginduko ziren gero euskal politikariak. Eleizaldek leku hautatua izan zuen Batzar hartan, izan era bera baitzen Eusko Ikaskuntzako Hizkuntz Sailaren burua. Esku zuzena izan zuen handik Euskaltzaindiaren sorkuntza sustatzean.



# 10

Adibidez, hainbat eratan ematen dira «ogia» hitzaren transkripzioak: *Ogia, ogie, ogiya, ogiye, ogija, ogijae, obijae*, etab. Forma horiek fonetikoki zuzenak baldin badira ere, euskararen batasunerako era bat eta bakarra onartu behar da «ogia» zeinu linguistikoa aditzera eman ahal izateko.

Ortografiaren bateratze lana, berriz, jarrera gogorrena zutenen iritzia alde batera utzi behar izan baldin bazen ere, ez zen euskarak zituen hots guztiei grafema bana egokituz egin, erdibideari jarraituz baizik, ezin baita beti hots bakoitza bere zeinu bereziaren bidez adierazi.

Ezinbestekoa zen idatzizko hizkuntzarako euskalkien arteko batasuna lortzea. Batzuen ustez literatura obrarik onenetan erabiliko zen euskalkia, hau da, euskalkirik kultoena, nagusitu arte itxarotea zen bidezkoena. Eleizalde, aldiz, euskararen bateratze lana lehenbailehen egitearen aldekoa zen, bere ustez ezin baitzen Euskal Herrian Dante, Shakespeare edo Homeroren mailako idazle bat sortu eta berak ezarriko zuen euskalki literarioaren zain egon.

**EUSKALTZAINDIAREN SORTZAILEAK**  
Oñatiko Batzarraren ondoren, laukote baten eskuetan geratu zen Euskal Akademiaren proiektu teknikoa lantzeko ardura: R.M. Azkue, J. Urkixo, A. Kanpion eta K. Eleizalderenetan. Orduetik izan ziren Eleizalde eta beste hirurok euskaltzain guztien aurreko akademiko izendatuak.

Euskalki literarioaren aukera egitea eta hizkuntza letra ederren kategoriara jasotzea euskal idazleei zegozkien egitekoak ziren, hori euskararen iraupenerako baldintza bakarra ez izanik ere, ezinbestekoa baitzen. Ongi zekien Eleizaldek hizkuntza literarioek artifizialtasun kutsua izan ohi dutela, baina, hala ere, urteak joan urteak etorri, erabiliaren erabiliz, naturaltasuna hartzen dute gizarte talde jakintsuenen artean. Idazleek hedatu behar zituzten «euzkelgi» guztietan berdin erabiltzen ziren hitz eta egiturak eta ez euskalki bakoitzak zituen berezitasun eta bitxikeriei lotu.





## HIZKUNTZ POLITIKARIA

Eleizaldek ez zion heldu hizkuntzaren azterketari, Azkue edo Urkixok egin zuten ikuspuntu beretik, S. Aranaren edo Kanpionen alde politikoagoetatik baizik. Hizkuntza, gertakari sozial bezala begiratu zuen, baita euskara bere baitandik aztertu zuenetan ere. Oñatiko Batzarrera eraman zituen bi lan hauek aski adierazgarriak ditugu: hizkuntzarekiko praxi eta burubide sozio-politiko berriak eskatu zituen han Eleizaldek.



11

Bestalde, hizkuntzaren barne-moldaketan, aditz trinkoaren berreskuratzea izan zen Koldo Eleizaldek egin zuen ahaleginik handiena: itxuraz urteetan zehar galtutako aditz forma trinkoak berreskuratzea.

Bere matematikari lanbidearen eraginez edo, behinola agian erabili izan ziren eta, sabindarren garbizaletasunari jarraituz, berriro ere erabili behar liratekeen aditz formak berreskuratzeari ekin zion. *Morfología de la conjugación vasca sintética* (La



#### EUSKAL LURRALDEAK ETA HIZKUNTZA

Euskararen galera eta euskal lurraldeen idortzea antzeko giza jokabideen fruitu bezala ikusi zituen Eleizaldek: behar zenean kontrako inguruari aurre egiteko adorerik ezaren emaitza bezala. Horrela, euskal hegoaldeetako paisaia bera beste utzikeria kultural baten sinbolo bilakatzen zen Eleizalderen begietan.

*conjugación sintética guipuzkoana en el tratamiento cortés*) deritzan liburua izan zen horren lekukorik garbiena, 1913. urtean argitaratu zena eta Eleizaldek aranatarren sistemari zehatz-mehatz jarraituz egin zuen idazkirik garrantzizkoenatarikoa.

Eleizalde, aditz joko sintetikoa osatzeak zuen matematika kutsuak liluraturik, ez zen konturatu euskal aditz jokoa antzinatik hizkuntza erromantzeen joko moldeetara lerratuz joan dela, René Lafon-ek ongi frogatu zuen bezala, beste gauza batzuen artean forma konposatuak bakunak baino erabilgarriagoak direlako.

Euskalariek eta idazleek erabiltzeko moduko paradigmetan aditz forma

ezberdinak jasoko zituen metodoa eratu nahia eta aditz joko sintetikoari buruzko parametroak hedatzeko ahalegina gogorrak izan ziren eta, hasera-haseratik, aranatarren laudorioak (López Mendizabal) eta aurkakoen kritikak (J. Vinson) jaso zituen.

#### ***Euskal eskola***

Irakaskuntzarekin zuen lotura profesionala zela eta, etengabeko ardura erakutsi zuen Eleizaldek eskolarekiko. «El problema de la enseñanza en el País Vasco» izeneko hitzaldia eman zuen Eusko Ikaskuntzaren Lehenengo Batzarrean 1918. urtean.

Jendea hezitzeko eta herritarrei kultura emateko interes gutxi jartzearen eta zabarkeria eta utzikeria horrek Euskal Herriari ekarri dion atzerakada politiko eta sozialaren salaketa egiten zien euskaldunei. Hala ere, irtenbideak jartzeko garaia zela uste zuen eta horretarako txekoslobakiarren ereduari jarraituz euskal eskolak sortzeko ardura izango zuten elkarteak sortzearen aldekoa zen. Gerra ostean ikastolen alde izan den mugimendua aurrikusiz, honako hau esan ohi zuen: «Gaurkoz ez dago beste biderik (euskal eskolena baizik), bide neketsua, zaila eta sakrifizioz

betea; baina, hala ere, horixe da egingarria den bide bakarra. Ezinbestekoa ikusten dut bide horri ekitea».

Ama hizkuntzaz emandako irakaskuntza behar zuen Euskal Herriak Eleizalderen aburuz, hizkuntza hori zuzen-zuzenean heltzen baita adimenera eta sentimenduetara eta inolako zailtasunik gabe gordetzen da memorian. Irlandako, Poloniako eta Txekoslobakiako adibideak hartu behar zituen Euskadik eredutzat. Ildo honi jarraituz, elizjendeak ere bere laguntza eskaini behar zuen baserrietako haurrak talde txikietan bilduz, funtsezko hezkuntza emanaz, euskaraz irakurtzen eta idazten erakutsiz eta zenbaketak eta oinarrizko lau ariketak egiteko gai izan zitezten lortuz.



Estatuko eskoletako agintariak ezarritako pedagogiaren aurkako erasoak etengabekoak ziren Eleizalderen idazki eta hitzetan. Euskararekiko mesprezua eta gaztelera ikasten ez zuten ikasleek jasan behar izaten zituzten zigorrak hurrengan sortzen zuten gorrotogiroa salatzen zituen. Hori dela eta, honako hau aipatu ohi zuen: «Hain prozedura gogorrez eta antipedagogikoz ezarri nahi den hezkuntza horren kontrako gorrotoa eta aurkakotasuna ez dira jarrera bitxiak, naturalak baizik.»

«La lucha por el idioma propio» hitzaldian ere (1918.eko martxoaren 16 eta 17koa), euskaltasunaren aurkako irakasbidetzat jotzen zuen eskola sistemaren kontrako iritziak kaleratu zituen. Bigarren mailako irakaskuntzan euskara erabiltzea debekatzen zuen legearen kontra zegoen, izan ere, euskal gazteak beste ikasleak baino egoera eskasagoan jartzen baitzituen bere ikasketak ezagutzen ez zuten mintzaira batetan egitera behartuz. Lehenengo mailako irakaskuntzari

#### SABINO ARANA

Eleizaldek, Aranak urratutako ildotik lan egin nahi izan zuen hizkuntzaren defentsan; baina bergararrantzat guttiz premiatsua eta larria zen euskalkien arteko aldeak gainditu eta kultur lanetarako hizkuntza batu bat sortzea. Arazo honen inguruan ardura berezia erakutsi zuen.



**HIZKUNTZA AZTERTZEN** (1913) Hizkuntzaren egoera soziala hobetzeko ere, euskararen berezko barne-baliabideak hobetu beharra sentitu zuen Eleizaldek, corpus-a egokitu beharra alegia. Euskararen hizkuntza ahalbide batzuek liluratu egin zuten matematikari idazlea, agian jatorrizko ezaugarriak jatorrenak haietan ikusi uste zituelako. Baina, kasuren batean, ustela suertatu zen haren iritzia (aditz trinkoa ez zaigu indarberritu hizkuntzaren erabilpenean, hark nahi izandakoaren kontra).

dagokionez, antzeko salaketak egin ohi zituen, herri askotan euskararik ez zekien bakarria herriko maisua edo maistra izaten baitzen. Hona zer esan ohi zuen gai honi buruz: «Hori da izan ere, gure artean hainbat analfabeto egotearen zioa, hortxe datza irakurketarako zaletasunik ezaren zergatia, hortxe dago gure haur euskaldunen egoera tamalgarriaren muina, adimenerako elikadura eskatu eta zigorra eta mesprezua bereganatzen dute sari gaizto gisa». Laburbilduz, Euskal Herriaren historia, euskara eta herri abestiak irakasten ez zituen eskolaren aurkako jarrera hartu

zuen. Eta zer esan eraztun salatarioa bata besteari emate prozedura nazkagarri horri buruz? Hori dela eta, Euskal Herriko eskola ofizialaren eta aplikatzen zen zentzugabeko, arrazoigabeko eta agintekeriazko pedagogiaren aurkako berezko jarrera hartzen zuen haurrak.

Alde batetik, lehenengo mailako hezkuntza euskaraz eman behar zela defendatzen zuen, era honetan bakarrik izango baitzen onuragarria eta protxuzkoa; bestalde, hezkuntza euskaraz jasotzeko haurrek zuten eskubidea agintariek onar zezaten saiatu zen, eskolatik bertatik hasten ez den euskalduntze lanak alferrikakoak baitira bestela.

Ume euskaldunei hezkuntza euskaraz eman behar zitzaiela eta erdaldunek ere ikasgaien artean euskara izan behar zutela esaten zuen Eleizaldek. Gainera, ikaslearen tasun analitikoak euskara ikasiz matematikaren maila berean gara zitezkeela uste zuen.

### ***Euskarazko testuak sortzea***

Lehenengo mailako irakaskuntzan oinarritako euskara irakurtzen eta idazten irakastea eta goi mailakoan euskal gramatika eta Euskal Herriko historia eta geografia ematea agintzen

zuen auzoetako eskoletako lehenengo arautegiak. Baina horrek aipatu diren gaiei buruzko testuak sortzea eskatzen zuen.

1918.eko martxoaren 16 eta 17an emandako mintzaldian, «La lucha por el idioma propio» titulua zuen hartan, lehen mailako irakaskuntzarako euskaraz idatzitako ikasliburuak sortzeko premia larria azpimarratu eta euskal idazle guztiei langintza horretan

laguntzeko deia egin zien. Irakurtzen ikasteko moduak, aritmetikari buruzko oinarrizko testuak, hainbat gairi buruzko euskarazko tratatuak eta literatur obrak argitaratzea ezinbestekotzat jotzen zuen euskarak mintzaira landuaren maila har zezan.

Auzoetako eskoletarako lehenengo euskarazko testuak 1921. urtean argitaratu ziren; baina berehalaxe, aurka jarri ziren Instrukzio Junta eta

15

#### EUSKAL ESKOLAGINTZAN

Teorikari bezala ezezik, Bizkaiko eskolen arduradun ofizial bezala ere, euskal eskolaren arazoak kezka asko piztu eta ordu anitz eraman zion Eleizalderi, eta auzo-eskoletako egitarau eta ikasgaietan euskal kulturak eta hizkuntzak toki nagusiagoa irabazi zuten Bizkaian eskola-ikuskatzaile honen ahaleginei esker, 1919tik aurrera.





EDUARDO LANDETA (1862-1957)  
Bizkaiko lehen irakaskuntzaren sustapen-berrikuntzetan hiruzpalau teknikariren izenak aipatu izan dira, gerraurreko historian: Landeta, Belaustegigoitia, Azpeitia eta Eleizalde. Jelkide honek teknikari trebearen laguntza aurkitu zuen Landetarengan auzo-eskolen eraikuntzarako.

bai nazionalismoaren kontrakoak ziren egunkariak ere. Ondorioz, testuok erabiltzea debekatu egin zen, bertan abertzaletasunaren aldeko iritzi politikoak jaulkitzen omen zirelako. Historia, geografia, aritmetika, irakurketa, urbanitate eta baserrietarako garbitasunari buruzko

testuak ziren, dotrina eta silabario banarekin batera.

Aritmetikari buruzko liburu bat idatzi zuen bizkaieraz Eleizalde, titulu honekin: *Euskal-Zenbakistia, lenengo ikaste mailarako*. Silabario bat ere eratua zuen: *Euskaraz irakurtzeko irakaspidea*.

Eusko Ikaskuntza erakundeak lehenengo mailako irakaskuntzarako Batzordearen bidez euskarazko testuak kaleratzen jarraitu zuen. Eleizalde lankide izan zen ihardun horretan. Horrela, Bizkaiko Aldundiak ezartzen zituen eragozpenak gainditu ahal izan zituen: *Txomin-ikasle*, *Umearen laguna*, *Martin Txilibitu*, *Xabiartxo*, etab. argitaratu ziren.

Auzoetako eskoletarako liburuek originalak izan behar zuten eta euskal egoerari egokitutakoak. Testu original horiek edozein euskalkitan idatzita egon zitezkeen, baina bizkaierara itzuli behar ziren, Sabino Aranak sortutako ortografiari jarraituz, hain zuzen.

1922. urtean euskarazko testu horiek erabiltzea debekatu zenean, liburu haiek erre eta gazteleraz idatzitako beste testu batzuk ezarri zituztela ikusi zuen Eleizalde.



## ***Auzo eskoletako ikuskaria***

Kultura mailako beste ekintza batzurekin batera auzoetan 50 eskola sortzeko eskatuz Juan Gallano jaunak azaroaren 26an aurkeztu zuen mozioa ontzat eman zuen Bizkaiko Foru Aldundiak 1919. urteko abenduaren 9an egin zuen bileran. Akordio hori kontutan hartuz, herri txikietako eskolek jasaten zuten utzikeria eta

hezkuntza gazteleraz bakarrik ematearen ondorioz gune horietan hedatuta zegoen analfabetismoa desagertarazteko lehenengo lanei ekin zieten Koldo Eleizalde eta Eduardo Landeta jaunek eta Gallano eta Aransolo diputatuek. Hori eskola berri eta euskalduna sortu behar zela defendatuz aurreko urteetan indarra hartu zuen mugimendu


17



### ESKOLA-LIBURUAK

Euskal-eskolagintza egoki baten berehalako premia zen eskola liburuena. Horregatik, Bizkaiko Aldundiak testugintzarako lehiaketa bat egin zuen (1918). Politikaren aldatzean, Aldunditik liburugintza hau laguntzea zailagoa izan zenean, Eusko Ikaskuntzaz baliatu ziren euskaltzaleak. Eleizalderi bi eskolaliburu zor dizkiogu: Euskal-zenbakistia, eta Euskeraz irakurtzeko irakaspidea.

autonomistaren ondorio zuzena izan zen. 1917. urteko hauteskunde probintzietan abertzaleek lortu zuten garaipenak aurrerapen handiak ekarri zituen, oro har, hezkuntza arloan eta, ondorioz, euskal eskola ofiziala sortzeko eskabideak indarra hartu zuen, izan ere, hori baitzen analfabetismoa kentzeko biderik zuzenena. «Guztiok dakizuen bezala, gure herri txikietan bizi diren gazte asko eta askok ez du gaztelera ezagutzen, euskara da biztanle horien mintzaira bakarra. Gazteleraz eman behar izaten dituzte kultura mailako lehenengo urratsak eta, beraientzat hizkuntza hori arrotza denez, ezezaguna, ezin izaten dute ikasi ez irakurtzen, ezta idazten ere, hau da, alfer-alferrik joaten dira eskolara. Argi eta garbi dago, beraz, euskaraz



Tal es el caso de la Sociedad de Estudios Vascos. Y no hablemos de la Diputación, donde sigue dándose el ejemplo escandaloso de que dirija un negociado de enseñanza o mejor de propaganda bizcaitarra en las Escuelas un fanático peligroso, a quien colocó allí para retribuir sus servicios de partido la mayoría nacionalista. A cargo de esas dos entidades, sobre todo de la primera, el Congreso forzosamente había de revestir el carácter que hoy reconocemos con pena ha revestido.

irakatsi behar zaiela» (Ramón de la Sota, 1917-V-4).

Aldundiko Kultura Batzordea eta lehenengo mailako irakaskuntzak zituen arazoan konponbidea topatzeko ikerketak egin behar zituen Instrukzio Publikorako Batzordea sortu ziren urte honetan. Honako hauek izan ziren ikerketa horien ondorioak: herritar gehienek euskaraz egiten zuten aldeetan euskaraz eman behar zirela ikasgai gehienak; eta biztanle gehienak gazteleraz mintzaten ziren guneetan ere euskara irakatsi behar zela, idazten eta irakurtzen, baita euskal abestiak ere. 1918. urtean Oñatin ospatu zen Batzarrak ekarri zuen aurrerakadaren ondoren, euskal eskolak sortzeari ekin zitzaion. Eskola horietako ikuskari izendatu zuten Koldo Eleizalde eta honek, Eduardo Landeta eta Juan Gallanoren lankidetzaz, horretarako behar ziren maisu-maistrak izendatu zituen eskolak euskaraz eman behar ziren lanpostuetarako euskara ongi menperatzea eskatuz.

#### ERASO POLITIKOAK

Bizkaiko Aldunditik abertzaleek burutu nahi izan zuten hizkuntz eta irakaskuntz politika berritzaileak laster aurkituko zuen aurkakorik. «Liga Monárquica»k ez zuen barkatu potitikoki berriz ere indartu zenean. Hona El Pueblo Vasco-n eztabaidaren azterna bat (1922-09-15).

1919. urtetik hasita, ikuskari plaza Eleizalderen eskuetan egon zen. 1919. urteko «Liga Monárquica» delakoaren garaipenak auzoetako eskoletako euskal giroan aldaketa handia ekarri zuen eta nazionalistak agintean egon ziren bi urteetan proposatu zen antolaerak aldaketa sakonak izan zituen.

Eleizaldek Ligakoen aldetik eraso asko jasan behar izan bazituen ere, eskola abertzale eta euskaltzalea

sortzen lan handia egin zuela aitortu zuen handik urte batzutara Eduardo Landeta jaunak. «Irakaskuntza-negoziatuko edo, zehazkiago esateko, propaganda bizkaitarra egiteko erakunde hartako buru nazionalisten gehiengoak jarritako fanatiko arriskutsu bat izatea tamalgarria da benetan», idatzi zuten Eleizalderen kontra (*El Pueblo Vasco*, 1922-IX-15).

Egoera horrek ondorio txarrak izan zituen eta 1921.eko urriaren 11n

19



#### ELEIZALDE, GOGORATUA

Eleizalderen lumak eta ekintza politikoak izan dute beretarren artean eta Euskal kulturaren oroimenean omenik ere. Bergarako herriak kale hau eskaini zion herriko semeari, Irargi Mikrofilmtearearen ondoan. Villasantek, Euskaltzainburu izanak, ostera, 1970etik hona euskararen batasunari buruzko bere liburu-bilduma «Luis de Eleizalde»ren izenpean darama aurrera. Asmo zaharraren oihartzun berriak, noski.

ikasketa plana aldatu zen euskara eta euskal gramatika irakastea debekatu zelarik.

Plan berria, hau da, gaztelera eta gaztelera-gramatika eskola guztietan irakatsi behar zela, Koldo Eleizalde jaunak jakin arazi behar izan zien maisu-maistrei, bere ikuskari lana betez.

Aldundiaren auzo eskoletako ikuskari izendatu zuten Eleizalde 1919.eko maiatzean. Instrukzio Publikorako Batzordeko aholkulari ere egin zuten, honako egiteko hauek zeuzkan bere gain: Batzordeari informazioa eta aholkuak ematea, eskoletako ikuskaritzaz arduratzea eta maisu-maistrei laguntza eskaintzea. Eleizalde irakaskuntza planak garatzeko eta pedagogia tekniken berri maisu-maistrei emateko gai zela uste zuten Batzordeak eta harrera ona izan zuten hasera-haseratik Eleizalde aurkezten zituen txostenek. Horregatik, aukera ezin hobea izan zuen bere hitzaldietan, komunikabideetan argitaratu zituen artikuluetan eta Oñatiko Batzarrean aditzera eman zituen ideiak aplikatu ahal izateko. Ondorioz, elebitako irakaskuntza bultzatu zuen eta Estatuak ezartzen zuen eskola ereduaz besteko euskal eskola sustatzeko bideak asmatu zituen. Gainera, Estatuak ezarri nahi

zuen eredu horretan ama-hizkuntza euskara zuten haurrei hezkuntza egokia emateko hartu behar ziren irakasleak aukeratzeko eskubidea galdu zuten udalek.

## Azken hitzak

Eleizalde mundu hau utzi zuenetik hona hainbat urte igaro dira eta haren bizitza eta lanak ezagutzen ari garen heinean, gero eta hobeto ulertzen dugu egin zuen lan ikaragarria. Honako hau esango genuke laburpen gisa: euskara berreskuratzen eta euskarazko irakaskuntzaren alde lan egiten ahalegindu zela, euskaraz irakasteko behar ziren euskal liburuak sortu zituela, euskara gizartean gehiago erabil zedin ahalegindu zela, ideia abertzale eta erlijiosoak hedatu zituela, akademikoa eta idazlea izan zela, politikoa eta publizista, ideia nazionalisten bultzatzaile intelektuala. Bi hitzetan esateko, bere adimen gaitasun osoa herriaren zerbitzura jarri zuen Euskal Herriak aurrera egin zezan. Eleizalde ahaztuta eta baztertuta egon baldin bada ere, ezinbestekoa zaigu haren bizitza eta lana sakon aztertu eta ezagutzea gaur egungo euskal gizartearen aitzindari dugula konturatu ahal izateko.